



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 11

115. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziarri. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NEKP Basoaren proiektua Nafarroaren lurralde osora hedatzen. Mozioa erretiratzea (6. or.).
- 11-24/DEC-00044. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazpen askatasuna mugatu nahi duen ekintza oro arbuiatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-24/PES-00408. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00409. Galdera, 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00410. Galdera, 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaraturako enpresa-proiektuei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00411. Galdera, 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00412. Galdera, Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00413. Galdera, Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00414. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00415. Galdera, etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00416. Galdera, komunikazio enpresa batek antolaturiko ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 107/2024 Ebazpena, urriaren 7koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez baliorik gabe uzten baita Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren urriaren 1eko Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartzea erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera, kasuko kontseilariak ahoz erantzun dezan (13. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziari**

### *IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziari.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Irailaren 27an urte judiziala irekitzeko ekitaldia egin zen; ekitaldian, besteak beste, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidente Joaquín Galve jaunak eta Nafarroako fiskal nagusi Jaime Goyena jaunak esku hartu zuten.

Presidenteak kezkatuta agertu zen epaitegian ikusten ari dena dela-eta: asko ari da igotzen merkataritza-, familia- eta lan-prozeduren eta prozedura zibilen kasuen kopurua, eta nabarmen igotzen, orobat, zigor-arloko epaitegiekiko eta adingabeen epaitegiekiko auzien kopurua. Nabarmentzekoa da ezen merkataritza-arloko epaitegietan % 174 igo

dela konkurtso-prozesuen kopurua, eta % 66 konkurtsokoak ez diren auziena. Eta hori guztia, unitate judizial berriak sortu gabe.

2023an, areagotu egin zen erkidegoko jardue- ra judiziala –77.770 prozedura–, aurreko urtean baino 2.500 kasu gehiago hain zuzen ere, eta 72.700 baino zertxobait gehiago ebatzi ziren.

Presidenteak orobat gogorarazi zuen ezen, orain dela 4 urte, urte judiziala irekitzeko ekitaldian, epaitegiak hartzen dituen eraikinean espaziorik ez dagoela-eta, espazio berriak irekitzeko premiaz ohartarazi zuela, baina gaur egun onetsi ere ez da egin horiek eraikitzeko hiri-jarduketaren plan berezia.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak adierazi zuen Nafarroan justiziarako bideratutako aurrekontua Espainiako txikiena dela eta, hortaz, baliabide gehiago behar direla. Hori dela-eta, konponbide bat eskatu zien erakundeei.

Presidenteak deitoratu zituen "magistratuen eta organo judizialen nahiz haien prestigioaren aurkako eraso sutsuak, ez soilik zenbat gizarte-sektoreenak, ezpada zenbait arduradun politikorenak ere".

Ikusita Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearen eskaera, erakundearen independentziaren aurkako eraso larritasuna eta laster Nafarroako 2025erako aurrekontu orokorrak eginen direla, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten dizkio Nafarroako Justiziari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio behar adina baliabide ekonomiko eman diezazkion Justiziari, Nafarroako

Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek aipatu zituen gabeziak konpondu ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentua magistratuen eta organo judizialen nahiz haien prestigioaren aurkako erasoak amaiaraztera konprometitzen da.

Iruñean, 2024ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

## **11-24/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez**

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorretan gutxienez 300.000 euroko partida bat sar dezan Uharteko Udalarentzat, izotz-pistaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko xedez.

Zioen azalpena

Iragan otsailean, Uharteko Udalak izotz-pistaren egoera defizitarioaren berri eman zuen, eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarik jasotzen ez bazuen pista hori ixtea aztertuko zuela iragarri zuen.

Martxoan, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeko ordezkariak izotz-pista bisitatu zuten, eta udal-arduradunekin eta eremu federatuko ordezkariekin bildu ziren, instalazioaren egoera ekonomikoa bertatik bertara ezagutzeko.

Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak gaia aztertu zuen kontseilariarekin lan-bilkura batean. Bertan, talde guztiek eskatu zioten bideragarritasuna ahalbidetuko zuen irtenbide bat bilatzeko.

Ekainaren 20ko Osoko Bilkuran, EH Bildu taldeak mozio bat aurkeztu zuen, Gobernuak premia-tzen zuena inguratzaile termikoari eta aldagelei buruzko inbertsioen % 80 finantza dezan gutxienez ere, eta egiturazko defizitaren % 50 bere gain har dezan gutxienez ere. Mozio hori talde guztien aldeko botoarekin onetsi zen.

Irailaren 3an, EH Bilduk mozioa erretiratu zuen, behin betiko konponbide bat bilatzen ari direlakoan.

Nafarroako Gobernuari arazoa konpontzeko konpromisoa eskatu eta sei hilabetera, Unión del Pueblo Navarrok ez daki Uharteko Udalak zer formula planteatzen duen bere izotz-pistarekin duen finantzaketa-arazo larria konpontzeko.

Hortaz, honako erabaki-proposamen hau aurkezten da:

– 2025eko aurrekontuetan partida izendun bat sartzea, gutxienez 300.000 eurokoa, Uharteko Udalaren izotz-pistaren gastuak finantzatzeko. Kopuru horren zati bat egin beharreko inbertsioetarako erabili beharko litzateke, eta beste zati bat instalazioaren kudeaketaren defizita estaltzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

---

## **11-24/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2015-2019 legegintzaldian, Osasun Departamentuak Erriberriko Osasun Eskualde Oinarritzkoaren osasun-arreta birmoldatu zuen “Tafallako barruti soziosanitarioaren proiektu pilotua” ezarrita. Arreta-eredu horrek ekarri zuen Erriberriko Eten-gabeko Arretarako Gunea kentzea eta Tafallan

gaueko osasun-arreta eredu berria sortzea eta anbulantzia medikalizatu bat jartzea, osasun-zerbitzua emate aldera Tafallatik gertu dauden osasun-eskualde oinarritzkoetako 47.000 pertsonari.

Bost urte igaro dira eta ez da egindako jardueraren ebaluazio ofizialik egin laguntza-antolaketa berri horren arazoak, eragozpenak eta abantailak zehazteko. Informazio hori ezinbestekoa da eredu hori beste eskualde batzuetara hedatzeko edo horren ezarpenean atzera egiteko.

Erriberriko Osasun Eskualde Oinarritzoko herritarrek behin eta berriro eskatu dute balorazio hori egin dadila. Uste dute eredu horren ezarpena haien herrietara mugatzeak kaltetu edo pribilegiatuen irudi bat ematen diela, balorazioa nork egiten duen eta horren interesaren arabera, eta hori guztiz bidegabekoa da.

Erriberriko Udalak 2024ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran aho batez onetsi zuen Osasun Departamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatzea Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

## **11-23/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita NEKP Basoaren proiektua Nafarroaren lurralde osora heda dezan**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

2024ko urriaren 7an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da NEKP Basoaren proiektua

Nafarroaren lurralde osora heda dezan. Mozioa 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/DEC-00044. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazpen askatasuna mugatu nahi duen ekintza oro arbuiatzen baitu**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazpen askatasuna mugatu nahi duen ekintza oro arbuiatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die mezu horiek jaso dituzten diputatu, senatari eta europarlamentariei".

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00408. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan da "Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren" kontratazioa?

Esleitu gabe geratu baldin bada, zergatik izan da?

Esleitu gabe geratu baldin bada, zer urrats egingen dira hemendik aurrera?

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-24/PES-00409. Galdera, 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruzkoa**

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer epetan ebatzi dira, batez beste, 2023an eta 2024an foru erkidegoaren intereseko enpresa-proiektu deklaratzeko eskabideak?

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## **11-24/PES-00410. Galdera, 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratuak enpresa-proiektuei buruzkoa**

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratuak enpresa-proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer enpresa-proiektu deklaratu dira foru erkidegoaren interesekoak 2023an eta 2024an?

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta



**11-24/PES-00411. Galdera, 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Gobernuak 2023an ekitaldi hauek babestu izanaren justifikazioa?

– ElDiario.es jardunaldia, Ekonomia zirkularra (18.150 euro)

– ElDiario.es jardunaldia, Turismo Jasangarria (18.150 euro)

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

**11-24/PES-00412. Galdera, Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zerk justifikatzen du Nafarroako Gobernuak publizitatea jarri izana elDiario.es-en 2023ko kanpaina hauetan?

– Efizientzia energetikoa eta berriztagarriak sustatzea

– Nafarroako Eguneko ekitaldien zabalkundea

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00413. Galdera, Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nork gainbegiratzen du Anatomia Patologikoko teknikarien lana Reina Sofia Ospitaleko laborategian, bertan mediku anatomopatologorik ez dagoenean?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00414. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integrala 2011ko apirilaren 4an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuaren 2014ko apirilaren 16ko erabaki bidez, berriz, plan hori berrikustea onetsi zen, eskualde mailako zerbitzuen lurralde-integrazioari erreparatuta.

Planaren berrikuspen horren ondorioz, emakiden mapa berria zehaztu zen, halako moduan non Nafarroan lehen zeuden hiriarteko garraioko 38 emakidak 9 izatera pasatu baitira.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. Zertan da errepede bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea?

2. 2014az geroztik, noiz berritu ziren berrituta-ko emakidak eta noiz amaitzen da emakida horietako bakoitzaren indarraldia? Emakida horiek luzatzea aurreikusten baldin bada, noiz aurreikusten da luzatuko dela emakida horietako bakoitza?

3. Zer epe darabil gogoan departamentuak berritu beharreko emakidak formalizatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

## 11-24/PES-00415. Galdera, etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7 an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Eskubide Sozialetako Departamentuak, oraingotan bai, adingabeak dituzten hiru familiaren eta emakume baten kasuaren berri izan duelako esperantzaz –kalean lo egiten dute–, eta Iruñeko Udalak egindako adierazpenak entzun ondoren –"agortu egin dira etxerik gabeko familientzako plazak" esan du–, zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **11-24/PES-00416. Galdera, komunikazio enpresa batek antolaturiko ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, komunikazio enpresa batek antolaturiko ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer irizpide dute Nafarroako Gobernuak eta enpresa publikoek komunikazio-enpresa batek antolatutako ekitaldi/ekintza bat babesteko?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

**107/2024 Ebazpena, urriaren 7koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez baliorik gabe uzten baita Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren urriaren 1eko Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartzea erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera, kasuko kontseilariak ahoz erantzun dezan**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak eskatu zuen ahoz erantzuteko sarzedila erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera idatzia (11-24/PES-00360), ez baitzuen epearen barruan erantzunik jaso. Hortik heldu zen 102/2024 Ebazpena.

Ebazpen hori jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak adierazi du ezinezkoa dela idatziz egindako galderari epe barruan erantzutea, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa ez zelako operatibo egon 2024-09-25ean.

Parlamentuko zerbitzuek egoera hori egiaztatu ondoren, eta epea amaitzen den eguneko 15:00etatik aurrera egoitza elektronikoa erregistroak egitea ezinezkoa dela berretsita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, Mahaia eta Bozeramaileen Batzardea entzun ondoren, honako hau

**EBATZI DU:**

**1.** Baliorik gabe uztea Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren urriaren 1eko Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartzea erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera, kasuko kontseilariak ahoz erantzun dezan.

**2.** Erabaki hau Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari eta Marta Álvarez Alonso andreaki igortzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias





